

10. GAIA: “Testamentuaren edukina”

I.-ARAUDIA

Kode Zibila

Hipoteka Legea

II.-JARAUNSLEA IZENDATZEA

1.-Idea orokorra

Beste sistema juridiko batzuetan ez bezala (adb. Katalunya), Espainiar ordenamenduan ez da beharrezkoa, testamentua baliozkoa izateko, testatzaileak jaraunslea izendatzea. Egia esan, arrunta izaten da testamentuko xedapenetan jaraunslea izendatzea, oinordetza zikloaren protagonista gisa, baina ez da nahitaezkoa. Horrela dio, izatez, KZeko 764. artikulua: *el testamento será válido aunque no contenga institución de heredero, o ésta no comprenda la totalidad de los bienes, y aunque el nombrado no acepte la herencia, o sea incapaz de heredar. En estos casos se cumplirán las disposiciones testamentarias hechas con arreglo a las leyes, y el remanente de los bienes pasará a los herederos legítimos.* Artikulu honetatik, beraz, ondoriozta daiteke:

1.-Testamentua baliozkoa dela, beste formaltasun guztiak betez gero, noski, nahiz eta jaraunsle izendapenik ez jaso.

2.-Jaraunslea izendatzen badu testatzaileak ez du zergatik ondare osoarekiko izendatu behar, ondasun bakan batzuekiko izenda dezake soilik.

3.-Testamentuak ez du baliozkotasuna galduko deituak jaraunspena zapuzten badu edo oinordetzeko gai ez bada. Kasu honetan, *abintestato* oinordetza irekiko da (KZeko 912. art), testatzaileak edo legegileak ez badu bestelako agindurik eman (ordezpena, gehiagotze eskubidea, ordezkatzeko eskubidea...).

Jaraunsearen izendapenak balioa izan dezan ez dago argi, hala ere, zein den jarraitu beharreko erizpidea, hots, testatzaileak ‘jaraunsle’ hitza erabiltzea (*nomen* edo izenaren lehentasuna), edo

deituari jaraunspenaren osotasuna edo zati alikuota bat uztea (*assignatio*-aren edo jasotakoaren lehentasuna). Bigarren hau omen da Kode zibilak hautatzen duen ildo bere 660 eta 668.2 artikuluetan, 5. gaian ikusi genuen bezala: ERIZPIDE OBJETIBOari jarraiki, legegilearentzat legatuduna da gauza edo harreman juridiko jakin bat jasotzen duena, eta jaraunslea titulu unibertsalez jaraunspenaren osotasuna edo zati alikuota hartzen duena, nahiz eta testatzaileak jaraunsle eta legatudun izenak ez erabili. Beraz, Kode zibilak bi kategoria hauek bakarrik arautzen ditu: alikuota legatu hartzailea jaraunslea da eta gauza zehaz baten gaineko jaraunslea legatuduna, ordea (KZeko 768. art). Bakoitzak jasotzen duenari begiratzen dio legegileak eta lau kategoria posible hoiak bitan zehazten ditu. Autore askok, aldiz, ERIZPIDE SUBJETIBOari jarraitzen diote. Hauen aburuz, jaraunspenaren borondatea da aztertu eta errespetatu behar dena, berak erabiltzen dituen izenei ere kasu eginez: posible da, beraz, legatudun bati kuota bat uztea eta jaraunsle bati gauza zehatz bat, kausatzaileak hala nahi badu. Lau kategoriak posible direla argi uzten dute autore hauek:

JARAUNSLEA

- Titulu unibertsalez oinordeko
- Jaraunspena onartzen du
- Zorren aurrean erantzuten du
- Jaraunspen erkidegoan sartzen da

LEGATUDUNA

- Titulu partikularrez oinordeko
- Legatua onartu behar du, baina ez jaraunspena
- Zorren aurrean ez du, printzipioz, erantzuten
- Ez da jaraunspen erkidegoan sartzen

ALIKUOTA LEGATU-HARTZAILEA

- Titulu partikularrez oinordeko
- Ez du jaraunspena onartu behar, legatua baizik
- Zorren aurrean ez du, printzipioz, erantzuten
- Jaraunspen komunitatean sartzen da jaraunspenean kuota bat duelako

GAUZA ZEHATZ BATEN GAINEKO JARAUNSLE

- Titulu unibertsalez oinordeko

- Jaraunspena onartzen du
- Zorren aurrean erantzuten du
- Ez da jaraunspen komunitatean sartzen, gauza zehaz bat jasotzen duelako, ez kuota bat

Oinarri gisa erabiltzen den erizpidearen arabera, beraz, ondorioak oso ezberdinak izan daitezke, batez ere, zorren aurreko erantzunkizuna edo erkidegoan parte-hartzea.

2.-Izendatzeko era

Jaraunspena izendatzen denean beharrezkoa da zenbait ukanbehar betetzea, alegia. Honi buruz aritzen dira Kode zibileko zenbait artikulua. Ikus ditzagun:

1.-Xedapen ziurra eta zehatza eman behar du testatzaileak. Ez da beharrezkoa pertsona zehaztea izenez, identitate indibiduala azalduz. Nahikoa da zalantzarik gabe zehazgarria izatea, kausatzaileak pertsona hori zehazteko datu nahikoa ematea, alegia; adibidez, jaiotzen den lehenengo iloba. Kasu horretan ez da deialdia deuseza izango, orduan, izendatua zehaztu arte efekturik izango ez duen arren.

Toda disposición a favor de persona incierta será nula, a menos que por algún evento pueda resultar cierta (kzeko 750. art.).

Si entre personas del mismo nombre y apellido hay igualdad de circunstancias y éstas son tales que no permiten distinguir al instituido, ninguno será heredero (kzeko 773.2. art.).

2.-Atzerago esan bezala, Kode zibilak koherentziaz ez du kausatzailea jaraunspena izena aipatzera behartzen, baina bai izendatua egoki zehazteko datuak ematera.

El testador designará al heredero por su nombre y apellidos, y cuando haya dos que los tengan iguales deberá señalar alguna circunstancia por la que se conozca al instituido. Aunque el testador haya omitido el nombre del heredero, si lo designare de modo que no pueda dudarse quién sea el instituido, valdrá la institución (kzeko 772.1 eta 2. art.).

3.- Oinordeko bi edo gehiago izendatzen badira, Kodeak zenbait interpretazio-arau ematen ditu testatzailearen borondatea argitzeko.

Los herederos instituidos sin designación de partes heredarán por partes iguales (kzeko 765. art.).

Cuando el testador nombre unos herederos individualmente y otros colectivamente, como si dijere: «Instituyo por mis herederos a N. y a N., y a los hijos de N», los colectivamente nombrados se considerarán como si lo fueran individualmente, a no ser que conste de un modo claro que ha sido otra la voluntad del testador (kzeko 769. art.).

Si el testador instituye a sus hermanos, y los tiene carnales y de padre o madre solamente, se dividirá la herencia como en el caso de morir intestado (kzeko 770. art.; cfr. kzeko 949. art.).

Cuando el testador llame a la sucesión a una persona y a sus hijos, se entenderán todos instituidos simultánea y no sucesivamente (kzeko 771. art.).

En el testamento del adoptante, la expresión genérica hijo o hijos comprenden a los adoptivos (kzeko 772.3. art.).

AGE 1977/6/2 (RAJ 3256): “Aunque es necesario que la persona del heredero resulte designada de modo indudable por el testador, la institución ha perdido su carácter sacramental, interesando solamente al Código Civil que por la designación se venga en conocimiento del heredero, admitiendo el artículo 722 que sea designada por el nombre y apellido o por otras circunstancias o señales por las que no pueda dudarse quién sea el instituido y declarado por el Tribunal a quo que la manifestarse el aludido testador don Constantino M. D. Expresando su voluntad testamentaria, en el sentido de que dejaba todo su capital a su hijo, refiriéndose al que los testigos a los que se dirigía tenían como tal, unido a que, como fundadamente razona el juzgador de primera instancia, dichos testigos y en general todos los que guardaban relación de parentesco y amistad solo conociesen en esa posibilidad de filiación al demandado don Emilio – Francisco M. F., indudablemente debe entenderse a este como el instituido como su heredero por el precitado don Constantino M. D.”.

Hala eta guztiz ere, **zenbait suposamendutan**, zehazgarritasuna zalantzazkoa izan daiteke. Horietatik, Kodeak hiru hipotesi jaso eta horiei buruzko interpretazio-arauak ezartzen ditu:

(1) **Arimaren aldeko xedapenak**, arima zuzenbideko subjektu ez bada ere (nortasun juridikorik ez baitu). Kode Zibileko 747. artikulua dio: *si el testador dispusiera del todo o parte de sus bienes para sufragios y obras piadosas en beneficio de su alma, haciéndolo indeterminadamente y sin especificar su aplicación, los albaceas venderán los bienes y distribuirán su importe, dando la mitad al Diocesano para que lo destine a los indicados sufragios y a las*

atenciones y necesidades de la Iglesia, y la otra mitad al Gobernador civil correspondiente para los establecimientos benéficos del domicilio del difunto, y, en su defecto, para los de la provincia. Kasu horretan, jaraunspena helburu batzuei lotuta geratzen da eta, berez, ez dago ez jaraunslarik ez legatudunik. Albazea arduratuko da agindua betetzeaz edo, bestela, Kodeko 749.2. artikulua aplikatuko da analogiaz. Testamentugilearen borondatea kontuan izanda, mezak emateko bakarrik agindu badu, Gobernadore zibilari ez zaio ezer emango eta utzitako guztia elizbarrutiko arduradunari emango zaio.

(2) **Behartsuen aldeko xedapen orokorra:** hemen ere ez dago jaraunslarik eta onuradunak zehaztugabe daude, Kodeak honako irtenbide hau ematen dio arazo horri: *las disposiciones hechas a favor de los pobres en general, sin designación de personas ni de población, se entenderán limitadas a los del domicilio del testador en la época de su muerte, si no constare claramente haber sido otra su voluntad. La calificación de los pobres y la distribución de los bienes se harán por la persona que haya designado el testador, en su defecto por los albaceas, y, si no los hubiere, por el Párroco, el Alcalde y el Juez municipal, los cuales resolverán, por mayoría de votos, las dudas que ocurran. Esto mismo se hará cuando el testador haya dispuesto de sus bienes en favor de los pobres de una parroquia o pueblo determinado* (kodeko 749. art.; cfr. kodeko 788. eta 992.2. art.ak).

(3) **Ahaideen aldeko xedapen orokorra:** *la disposición hecha genéricamente en favor de los parientes del testador se entiende hecha en favor de los más próximos en grado* (kodeko 751. art.). Ahaidetzak odolkidetasuna eskatzen du eta, ondorioz, ezkontidea kanpoan geratzen da. Helburua da *ab intestato* oinordetzak jartzen duen muga ekiditea, laugarren mailaraino bakarrik hedatzen baita. Kasu horretan, ahaide horiek nor diren zehaztu beharko da muga hori gaindituagatik ere.

Jaraunsearen izendapenari buruz aritu bagara ere, **legatuduna** izendatzeko erizpideok aplikagarriak direla aipatu beharra dago, alegia.

3.-Izendapenaren kausa

Nahiz eta legegileak *kaus*a hitza aipatu, egia esan izendapenaren motiboei buruz ari da, hau da, testatzaileak jaraunsea izendatzeko izan ditzakeen motiboen garrantziari buruz. Zio horiei buruz zera dio Kodeko 767. artikulua: *la expresión de una causa falsa de la institución de heredero o del nombramiento de legatario, será considerada como no escrita, a no ser que del testamento resulte que*

el testador no habría hecho tal institución o legado si hubiese conocido la falsedad de la causa. La expresión de una causa contraria a derecho, aunque sea verdadera, se tendrá también por no escrita. Horren arabera, izendapena egiteko arrazoi faltsuak testamentuan jartzeak ez du inolako eraginik [ez bada probatzen, behintzat, testatzaileak ez lukeela izendapena egingo jakin izan balu arrazoa faltsua zela]; legegileari ez zaizkio axola testatzailearen arrazoiak, edo eta hauek benetakoak ala faltsuak diren.

III.-MODUZKO XEDAPENAK

Jakina denez, negozio juridikoan, elementu tipikoez gain, badago elementu osagarriak sartzeko aukera, funtsezko edukia, tipifikatua dagoena, zehazten eta osatzen duten elementuak, alegia. Hiru dira elementuok, doktrinak burutzen duen sailkapenaren arabera: **baldintza**, **epea** eta **modua**. Testamentua *mortis causa* negozio juridikoa denez, bere xedapenei ere baldintzak, epeak edo modua ezar dakieke, bai jaraunslearen izendapenean baita legatitudunarenean ere. Hala, izendapen hoiek baldintzatu daitezke, epe bat ezarri dakieke edo eta karga bat, moduaren bidez. Azter ditzagun aukerok.

1.-Baldintzapeko izendapena

Baldintza bat ezartzen denean negozio juridiko baten *corpus*-ean, **ziurra ez den etorkizuneko gertaera edo portaera baten menpe** geratzen dira negozioaren ondorioak (Kzeko 1113., 1117. eta 1118. art.ak), eta, gure kasuan, jaraunsle edo legatitudunaren izendapena.

Baldintzapeko xedapenak emateko oinarri juridikoa Kodeko artikulua hauetan dago: *las disposiciones testamentarias, tanto a título universal como particular, podrán hacerse bajo condición* (Kzeko 790. art.); *las condiciones impuestas a los herederos y legatarios, en lo que no esté prevenido en esta sección, se regirán por las reglas establecidas para las obligaciones condicionales* (Kzeko 791. art.). Erremisioa, beraz, KZeko 1.113-1.124 artikuluen aldekoa da.

Baldintza mota ezberdinak aztertuko ditugu, segidan, bakoitzak testatzailearen xedapenetan izan dezakeen eragina zehaztuz:

a) Baldintza ezinezkoak, legez kontrakoak eta ohitura onen kontrakoak.

Las condiciones imposibles y las contrarias a las leyes o a las buenas costumbres se tendrán por no puestas y en nada perjudicarán al heredero o legatario, aun cuando el testador disponga otra cosa (κzeko 792. art.: adb, ilargira bizikletaz igotzea, edo norbait erahiltzea). Normalean, beste negozio juridikoak, horrelako baldintzekin eginez gero, deusezak dira (κzeko 1116. art.). Testamentuari buruzko zuzenbidean, aldiz, negozioa ez da deuseza, baldintza soilik deusezten da. Baldintza jarri izan ez balitz jokatzeko galdatzen du legegileak. Baldintza zailak baliozkoak dira, ordea, ezinezkoak ez direlako.

Legez kontrako eta ohitura onen aurkako baldintzaren adibide bikaina da KZeko 793. artikulua aurreikusten duen hipotesia: *La condición absoluta de no contraer primero o ulterior matrimonio se tendrá por no puesta, a menos que lo haya sido al viudo o viuda por su difunto consorte o por los ascendientes o descendientes de éste. Podrá, sin embargo, legarse a cualquiera el usufructo, uso o habitación, o una pensión o prestación personal, por el tiempo que permanezca soltero o viudo* (κzeko 793. art.). Doktrinan eztabaidagai izan zen baldintza hori zilegi ote zen ala ez; Kodeak irtenbide horren alde egitea aukeratu zuen. Baldintzak nortasunaren askatasuna mugatzen badu modu absolutuz, deuseza da [ezkontide alargunari ezartzen zaionean izan ezik]. Debekua erlatiboa bada, baldintza, edonori jarria, baliozkoa izango da; adibidez, pertsona zehatz batekin ala adin jakin batera iritsi arte ez ezkontzekoa. Halere, eta debeku absolutuari buruz, 792 artikulua aplikatu liteke eta 793 artikulua ez, frogatzen bada ezkontzeko arrazoi moralak daudela eta debekua ez dela zilegi, moralaren edo ohitura onen kontra doalako.

b) Elkarren arteko mesederako ezarritako baldintzak

KZeko 794. artikulua araberak, *será nula la disposición hecha bajo condición de que el heredero o legatario haga en su testamento alguna disposición en favor del testador o de otra persona*. Kasu honetan Kodearen arau orokorra apurtzen da testamentu bidezko oinordetzaren eremuari gagozkiola; izan ere, **baldintza eta xedapena bera deusezak deklaritzen baititu**, eta ez baldintza bakarrik, aurrekoekin gertatzen zen bezala.

d) Baldintza potestatiboak, kasualak eta mistoak

Baldintza potestatiboa da oinordekoaren borondatearen esku uzten dena, hots, baldintzapekoak duenean berau betetzeko edo ez betetzeko ahalmena [adb: karrera amaitzea]. Baldintza potestatiboa *purua* izan daiteke edo *soila*: purua baldintzapekoaren borondate hutsean oinarritzen dena da [adb: eskua altzatu], eta soilak beste inguruabarren bat galdatzen du baldintzapekoaren borondatearekin batera [adb: etxe bat eraikitzea].

Baldintza kasuala, hirugarren baten borondatean oinarritzen dena da edo eta zoriaren eragina oinarri duena, baldintzapekoaren borondatea jokoan sartu barik [adb: sari bat jasotzea, elurte bat erortzea...]. **Mistoa**, argi denez, potestatiboaren eta kasualaren artan kokatzen da: alde batetik, baldintzapekoaren borondatea kontuan hartzen duena, eta, bestetik, kasualitatearen edo zoriaren eragina ere aurreikusten duena [adb: haurdun geratzea, loteria tokatzea...].

Halaber, baldintzak **positiboak ala negatiboak** izan daitezke: positiboa deitzen zaio zerbait ematea edo egitea galdatzen duenari eta negatiboa zerbait ez ematea edo ez egitea galdatzen duenari, aldiz.

Kode zibilak baditu arau batzuk baldintza hauen konbinaketaren inguruan. Aipa ditzagun:

(1) *La condición puramente potestativa impuesta al heredero o legatario ha de ser cumplida por éstos, una vez enterados de ella, después de la muerte del testador. Exceptúese el caso en que la condición, ya cumplida, no pueda reiterarse* (KZeko 795. art.). Baldintza betetzea onuradunaren esku geratzen bada, zalantza da ea nahikoa ote den onuradunak betetzeko ahaleginak egitea edo benetan baldintza bete egin behar duen. Askoren ustez, bere esku dituen ahalegin guztiak egin baditu, nahiz baldintza ez bete, betetzat jo daiteke; esaterako, lizentziatura lortzea. Arau hau **baldintza postestiboa positiboa** denerako ezarria dago.

(2) Baldintza **potestatiboa negatiboa** bada, aldiz, honako hau dio KZeko 800. artikulua: *Si la condición potestativa impuesta al heredero o legatario fuere negativa, o de no hacer o no dar, cumplirán con afianzar que no harán o no darán lo que fue prohibido por el testador, y que, en caso de contravención, devolverán lo percibido con sus frutos e intereses*. Egintza negatiboaz mintzatzen da artikulua, baina, kausatzailearen debekua hausteaz hitzegiten duenez, badirudi egintza positiboa dela; halaber, badirudi baldintza ez dela esekitzailea, suntsiarazlea baizik.

(3) *Cuando la condición fuere casual o mixta, bastará que se realice o cumpla en cualquier tiempo, vivo o muerto el testador, si éste no hubiese dispuesto otra cosa. Si hubiese existido o se hubiese cumplido al hacerse el testamento, y el testador lo ignoraba, se tendrá por cumplida. Si lo sabía, sólo se tendrá por cumplida cuando fuere de tal naturaleza que no pueda ya existir o cumplirse de nuevo*

(Kzeko 796. art.). Esan bezala, baldintza kasuala da onuradunaren esku ez dauden inguruabarren edo beste hirugarren baten borondatearen menpe dagoena; mistoa, berriz, bai onuradunaren borondatea eta bai beste kanpoko elementu baten parte-hartzea oinarri duena. Kasu horietan, baldintza bete egin beharko da.

e) Baldintza suspentsiboa edo esekitzailea

Testatzaileak oinordekoa baldintza esekitzaileapean izendatzen duenean, deialdiaren efektuak baldintza bete arte geldirik mantendu nahi ditu, alegia [adb: oinordeko izendatzen zaitut baldin eta telefonikan lana lortzen baduzu]. Baldintza bete arte, ez da delaziorik egongo, ez baitakigu, oraindik, baldintzapeko deitua oinordetzeko gai den ala ez (KZeko 758. art). Deituaren eskubidea oraindik kolokan dago, beraz, ezingo du jaraunspena onartu edo zapuztu.

Baldintza bete bitartean, jaraunspena, behintzat deituari dagokion zatian, **administraziopean jarriko da**. Administratzaileak beste jaraunseak izango dira, baldin badaude, beti ere haien artean gehiagotze eskubidea badago. Ez badago, baldintzapeko deituak administratuko du berari dagokion zatia fidantza jarriz gero. Ez badu fidantzarik ipintzen, bere ordeztu jaraunse izango litzatekeenak administratuko du zati hori (edo jaraunspen osoa, deitua bakarria bada), eta ez badago 'ordezko' pertsonarik, epaileak izendatutako hirugarren batek egingo du administrazio hori, KZeko 801, 802 eta 803. artikuluen arabera. Oro har, baldintzapeko deituak bere eskubidea kontserbatzeko neurriak eska ditzake.

Eztabaidagarria da, hala ere, baldintza bete gabe hiltzen den deituak baldintzapeko delazio eskubidea bere oinordekoei *mortis causa* transmititzen dien ala ez. Baldintzapean dauden oinordetzako eskubideak transmitigarriak ote diren edo ez erabakitzeko, Kode zibilak bi arau ematen ditu:

(1) *El heredero o legatario que muera antes de que la condición se cumpla, aunque sobreviva al testador, no transmite derecho alguno a sus herederos (Kzeko 759. art.).*

(2) *La condición suspensiva no impide al heredero o legatario adquirir sus respectivos derechos y transmitirlos a sus herederos, aun antes de que se verifique su cumplimiento (Kzeko 799. art.).*

Bi artikuluko horiek kontraesan argian daude eta lege arteko antinomia sortzen dute. Horregatik, jurisprudentziak eta doktrinak aurrekari historikoetara jo eta honako irtenbide hau ematen dute:

(1) **Kodeko 799. artikularen interpretazioa:** ez da benetako baldintza esekitzailera; berez, epe bat da, zehaztugabea baina seguru dakigu gertatuko dela (*certus an, incertus quando*). Kasu horretan, eskubide transmisioa gertatzen da (ikus AGE 1966/7/5 [RAJ 3671]), esaterako, baldintza *nor bait hiltzea* baldin bada.

AGE 1989/11/3 (RAJ 7847): “Tal precepto (art. 799), no obstante emplear el término *condición*, se refiere, como ha entendido la doctrina y la jurisprudencia, no a la verdadera condición sino al término *incertus quando* (...) o que la suspensión afecte a la sola ejecución de lo dispuesto por la testadora (es decir, no la suspensión de la disposición)”.

(2) Aldiz, gertaera gertatuko den edo ez ziur jakiterik ez badago (*incertus an*), orduan, **Kodeko 759. artikulua aplikatuko da**. Hori benetako baldintza da eta, bokazioak eraginik ez duenez berau betetzen ez den bitartean, ez da eskubiderik transmititzen. Dena den, testamentugileak esanbidez ken dezake muga hori, eta transmititzeko eskubidea eman onuradunari.

AGE 1954/10/20 (RAJ 2636): “El artículo 799 del Código civil dispone, en efecto, que la condición suspensiva no impide al heredero o legatario adquirir sus respectivos derechos y transmitirlos a sus herederos aun antes de que la condición se cumpla; y salvar la contradicción que existe con lo dispuesto en el artículo 759 del mismo Código, según el cual el heredero o legatario que muera antes que la condición se cumpla, aunque sobreviva al testador, no transmite derecho alguno a sus herederos, ha de entenderse que en el primero de dichos artículos no se emplea la palabra condición en su sentido estricto, sino que hace referencia a un término o plazo, cuyo vencimiento se determina por el fallecimiento de una persona, que necesariamente ha de acaecer, aunque se ignore cuándo, y cuyo efecto, mientras el vencimiento no llega, es suspender la efectividad de la institución, pero sin impedir la creación de derechos a favor del instituido, transmisibles a sus herederos desde el fallecimiento del testador. Mas como quiera que en el caso resuelto por la sentencia recurrida no se hace depender el nacimiento de derechos de las demandantes del término o plazo determinado por el hecho del fallecimiento de su padre, sino de la condición de que le sobrevivan, resulta aplicable a la situación así condicionada el artículo 759, cuya preferente aplicación al 799, por su conformidad con el 1114, se halla reconocida por la sentencia de este Tribunal, de 17 de marzo de 1934”.

Baldintza betetzen denean, beraz, delazioak bere efektuak sortuko ditu eta deituak izendapena kontsolidatu egingo du, jaraunspena edo legatua jasoz. Kontutan hartu beharko da, hala ere, KZeko 798. artikulua dioena: *Cuando, sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, no pueda tener efecto la institución o el legado de que trata el artículo precedente en los mismos términos que haya*

ordenado el testador, deberá cumplirse en otros, los más análogos y conformes a su voluntad. Cuando el interesado en que se cumpla, o no, impidiera su cumplimiento sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, se considerará cumplida la condición.

f) Baldintza suntsiarazlea

Kasu honetan, deituak hasieratik jasotzen du jaraunspena edo legatua, baldintza bukaeran baitago, ez hasieran. Horrela, baldintzapeko izendatuak jasotakoa galduko du baldintza betetzen bada, eta bueltatu beharko du eskuratutakoa fruitu eta interesekin. Testatzaileak ez badu ezer ere aurreikusi baldintza betetzen denerako, abintestato oinordetza zabalduko da baldintzapekoaren zatian, behintzat. Ez bada baldintza betetzen, mantenduko du izendatuak lortutako eskubidea.

2.-Epea

Baldintzapeko deialdiak eta epe bati lotutakoak onartzen ditu Kode zibilak oinarri juridiko berarekin, 790 eta 791. artikuluetan, alegia. Deialdia baldintzatu daitekeen bezala, epe bati lotua ere ager daiteke, testatzaileak hala nahi baldin badu. Epea izan daiteke *hasierakoa* edo *bukaerakoa*, hau da, deitua jaraunsele edo legatu hartzaile epe batetatik aurrera izateko pentsatuta badago (esekitzalea da, beraz, epea, eraginez) edo ezarritako epea helduta, jaraunsele edo legatu hartzaile kondizioa galtzeko pentsatuta badago (suntsiarazlea eraginez).

Kode Zibilak 805. artikuluan jasotzen du epeari buruzko erregimena: *será válida la designación de día o de tiempo en que haya de comenzar o cesar el efecto de la institución de heredero o del legado. En ambos casos, hasta que llegue el término señalado, o cuando éste concluya, se entenderá llamado el sucesor legítimo. Mas en el primer caso, no entrará éste en posesión de los bienes sino después de prestar caución suficiente, con intervención del instituido.*

Zailtasuna etor daiteke epea eta ordezen fideikomisarioa bereizteko unean, izan ere, ordezen fideikomisarioan maiz jaraunsele fiduziariorik fideikomisarioa igarotzeko epe bat ipintzen baita. Kasuz kasu aztertu beharko da testatzailearen borondatea jakiteko

zer den benetan nahi duena: ordezpena edo epe bati lotutako deialdi soila. Normalean bi deialdi luzatzen baditu kausatzaileak, epe bati lotua bigarrena, ordezpena izango dela dio doktrinak.

3.-Modua

Testatzaileak modua erabiltzen du jaraunsle edo legatu hartzaileari karga bat ezartzeko: jaraunspena edo legatua jasotzen du baina oinordekoak zerbait egin, ez egin edo eman behar du xedapena jasotzearen 'truke', nolabait [adb: jaraunsle izendatzen zaitut baina ama zure etxean mantendu behar duzu; karrera ordaindu behar diozu zure anaiari; ez atera Euskal Herriatik kanpora lanera...].

Kodeak ez du modua zer den definitzeko ardurarik hartu, baina, aipatu, aipatzen du, eta izen desberdinekin, gainera, (*gravamen, carga, condición*). Ondorioz, kategoria juridikoak nahasten dira eta zehaztasun teknikoa apurtu egiten da. Baldintza eta modua bereiztu behar dira, hala ere: baldintzak xedapenaren efektuak kolokan jartzen ditu, hasieran edo bukaeran; moduak, aldiz, ez du kolokan ezer ere uzten, oinordekoak bere eskubidea ziurra baitu, baina 'betebehar' osagarri bati atxekitua. Izatez, zalantza kasuetarako, moduaren aldeko presuntzioa ezartzen du legegileak, KZeko 797.1 artikuluan: *la expresión del objeto de la institución o legado, o la aplicación que haya de darse a lo dejado por el testador, o la carga que el mismo impusiere no se entenderán como condición, a no parecer que ésta era su voluntad*.

AGE 1965/6/4 (RAJ 3437): "La institución modal es aquella en que el testador impone al heredero instituido o al legatario designado la obligación de hacer u omitir algo para una finalidad determinada, pudiendo consistir en una carga real o meramente personal, pero sin atribuir a un tercero el derecho a exigir para sí la prestación pues en este supuesto se estaría ante un legado".

Xedapen modudunaren eraentza juridikoa:

1.-Doktrinaren gehiengoarentzat, modua betebehar bat da oinordekoarentzat eta, beraz, jaraunspena edo legatua onartzerakoan fidantza bat jarri beharko du beteko duela ziurtatzeko. Betetzen ez badu, autore gehienek uste dute interesdunek (albazeak, jaraunslekideek edo beste legatudunek...), epailearen bitartez, behartu dezaketela oinordekoa agindutako betetzera, subsidiarioki epaileari xedapenaren errebokazioa eskatuz, beteko ez badu behartuak. Beste batzuen eritziz, ordea, modua ez da

betebehar juridiko bat, eta ez badu oinordekoak betetzen, gehienez xedapena errebotatzeko aukera izango dute aipatu interesdunek prozedura judiziala tarteko, baina ez betearazteko zilegitasunik.

2.-Edozelan ere, modudun xedapena jasoz gero oinordekoa hil egiten bada modua bete gabe transmitituko die, era berean, bere oinordekoei jasotakoa, ez baita baldintzapeko deialdi bat: *lo dejado de esta manera puede pedirse desde luego, y es transmisible a los herederos que afiancen el cumplimiento de lo mandado por el testador, y la devolución de lo percibido con sus frutos e intereses, si faltaren a esta obligación* (KZeko 797.2. art.). Jaraunspena edo legatua moduduna bada, berehala eskuratuko da, modu hori bete arte itxaron gabe.

3.-Prestazioa betetzeak posible izan behar du, noski (KZeko 792 art. analogiaz). Betetzea ezinezkoa bada, Kodeko 798. artikulua zera agintzen du:

(3.1) *Cuando, sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, no pueda tener efecto la institución o el legado de que trata el artículo precedente en los mismos términos que haya ordenado el testador, deberá cumplirse en otros, los más análogos y conformes a su voluntad.* Beraz, errurik ez badago, bete egin beharko da antzeko zerbaitekin; errurik balego, berriz, antzeko zerbaitekin betetzea ez da nahiko izango.

(3.2) *Cuando el interesado en que se cumpla, o no, impidiera su cumplimiento sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, se considerará cumplida la condición.* Baldintza aipatzen badu ere, moduari ere aplikatu behar zaio. Kasu horretan, baldintza eta prestazioa betetzat joko dira, berez bete ez badira ere.

4.-Ez betetzeagatik, errebotatu egiten badu epaileak xedapena, oinordekoak jasotakoa, fruituak eta interesak bueltatu beharko ditu.

5.-Kode Zibileko 788. artikulua ere nolabaiteko modua arautzen du: *será válida la disposición que imponga al heredero la obligación de invertir ciertas cantidades periódicamente en obras benéficas, como dotes para doncellas pobres, pensiones para estudiantes o en favor de los pobres o de cualquiera establecimiento de beneficencia o de instrucción pública, bajo las condiciones siguientes:*

Si la carga se impusiere sobre bienes inmuebles y fuere temporal, el heredero o herederos podrán disponer de la finca gravada, sin que cese el gravamen mientras que su inscripción no se cancele.

Si la carga fuere perpetua, el heredero podrá capitalizarla e imponer el capital a interés con primera y suficiente hipoteca.

La capitalización e imposición del capital se hará interviniendo el Gobernador civil de la provincia y con audiencia del Ministerio Público.

En todo caso, cuando el testador no hubiere establecido un orden para la administración y aplicación de la manda benéfica, lo hará la Autoridad administrativa a quien corresponda con arreglo a las leyes.

IV.-LEGATU-HARTZAILEA IZENDATZEA

1.-Kontzeptua

Kode zibilak ez du legatua zer den definitzen. Bere 660. artikuluan dio titulu unibertsalez oinordetzen duena jaraunslea dela eta titulu partikularrez oinordetzen duena, berriz, legatuduna. Baina erizpide subjektibo bati jarraiki, badakigu kategoria puruenekin batera, badaudela beste aukera batzuk, bi eraentzak, jaraunslearena eta legatudunarena, guztietan mantentzen diren arren, edo bata edo bestea, asignazioari so egin gabe, alegia.

Legatuak azken borondatezko xedapenak direla esan daiteke, zeintzuen bitartez testatzaileak harreman juridiko bat sortzea, aldatzea edo iraungitzea agintzen duen. Kasuren baten, testatzailearen gauza pertsonala denean, zuzenean jasoko du legatudunak gauza horren edukitza, baina gehienetan legatu hartzailea hartzekodun bat bezala kontsideratu egiten da, berak beste bati (gehienetan jaraunsleari) legatu hori betetzea eta berari ematea eskatzen diona, hain zuzen. Esanguratsua da, hala, Nafarroako Konpilazioak eskaintzen duen definizioa: *manda o legados son aquellas liberalidades mortis causa a título singular que no atribuyen la cualidad de heredero, y que se imponen a cualquier persona que a título lucrativo reciba bienes del disponente, por voluntad del mismo o de la ley* (241. legea). Legearen poderioz, dio azken esaldiak, eta izan ere, Kode zibilak aurreikusten du baita legatua legearen aginduz eratzeko aukera, esaterako, ezkontide alargunaren gozamen eskubidea, senipartedun gisa.

2.-Elementu pertsonalak

Ikuspegi **subjektibotik**, testatzaileaz gain, legatuak erlazio juridikoa sortu eta bi pertsona lotzen ditu:

(1) **Zamatua**: legatuaren erantzule izan behar behar duena, alegia. Kodeko 858.1. artikulua zera dio: *el testador podrá gravar con mandas y legados no sólo a su heredero, sino también a los legatarios*. Beraz, legatuaren erantzule izan daitezke jaraunslea zein legatuduna.

(1.1) **Erantzulea jaraunslea bada**, beraren erantzukizuna mugagabea da, inbentario-onuraren arabera onartu ez badu behintzat. Gero, Kode Zibileko 859. artikulua zera agintzen du: *cuando el testador grave con un legado a uno de los herederos, él sólo quedará obligado a su cumplimiento. Si no gravare a ninguno en particular, quedarán obligados todos en la misma proporción en que sean herederos*. Erantzunkizun mankomunatua aurreikusten da, beraz.

(1.2) **Erantzulea legatuduna bada**: *estos no estarán obligados a responder del gravamen sino hasta donde alcance el valor del legado* (KZeko 858.2. art.). Kasu honetan, **azpilegatua** dago (*sublegado*): legatu-hartzaile bat denean beste legatu hartzaile bati bere legatua emateko beharra bere gain daukana. Erantzuleak bat baino gehiago badira, beren erantzukizuna ere mankomunatua da (zorren aurrekoa ez bezala, solidarioa dela), jaraunsleei aplikatutako erregela berberari jarraiki.

(2) **Onuraduna**: edozein pertsona izan daiteke legatuduna, fisikoa nahiz juridikoa. Ez da beharrezkoa oinordetza irekitzean pertsona izatea (*nasciturus* edo *concepturus*-aren inguruan esandakoa gogoratu), baina bai momentu horretan jadanik hila edo desagertua ez egotea. Onuraduna, aldi berean, legatu-hartzailea eta jaraunslea bada, **aurrelegatua** izango dugu (*prelegado*). Kasu honetan, beraz, KZeko 890.2 artikulua dioenez, legatua zapuztu ahal izango du onuradunak eta jaraunspena onartu, alderantziz, edo biak onartu edo biak zapuztu. Titulu unibertsala eta partikularra independenteak dira, pertsona berean topo egiten dutenean.

3.-Legatuen objektua

1.-KZeko 865. artikulua arabera, *es nulo el legado de cosas que están fuera del comercio*.

2.-KZeko 861. artikulua dio, halaber, hirugarren pertsona batena den gauza bat izan daitekela, baita, legatu baten objektua.

3.-KZeko 870. artikulua eskubideak legatuen objektu izan daitezkeela argi uzten du, bestalde.

4.-KZeko 880. artikulua diru kopuru bat edo errenta bat legatu baten objektu izan daitekeela aipatzen du, halaber.

Legatuen objetua anitza izan daitekeela argi dago, beti ere, *posiblea, zehatza eta zilegia* den heinean. Aniztasun hau legatu motak aztertzerakoan nabarmen daiteke.

4.-Legatu motak

Honako hauek dira Kode Zibilean aipatu eta **araututako legatuak, tipikoak**:

(1) **Testatzailearen gauza bat legatzea**: Kodeko 882.1. artikulua zera agintzen du: *cuando el legado es de cosa específica y determinada, propia del testador, el legatario adquiere su propiedad desde que aquél muere, y hace suyos los frutos o rentas pendientes, pero no las rentas devengadas y no satisfechas antes de la muerte.* KZeko 883. artikulua, halaber, honako hau dio: *la cosa legada deberá ser entregada con todos sus accesorios y en el estado en que se halle al morir el testador.* Beraz, horrelako legatuak eraginkortasun zuzena du eta berehala transmititzen du jabetza-eskubidea. Dena den, jaraunstea da jaraunspena osoaren edukitzailea (KZeko 440. art.) eta legatadunak ezin du edukitza-eskubidea zuzenean hartu bere kontura, gauzaren jabea bada ere: *el legatario no puede ocupar por su propia autoridad la cosa legada, sino que debe pedir su entrega y posesión al heredero o al albacea, cuando éste se halle autorizado para darla* (KZeko 885. art.). Arau horrek zentzua du, hain zuzen ere, lehenago adierazi denez, guztia kitatu bitartean komeni delako ondare guztia bat eginik izatea, gauzak sakabanatu gabe, hartzekodunek eta senipartedunek lehentasuna baitute legatadunen gainetik. Beraz, legatua entregatuko da jaraunspena kitatu eta banatu ostean, nahiz eta 882. artikulua aurreikusten duen hipotesian, legataduna dagoeneko jabea izan.

(2) **Beste baten gauza legatzea**: utzitako ondarean ez dagoen gauza edo eskubidea emateko obligazioa ezartzen du. Suposamenduak:

(2.1) **Hirugarren baten gauza legatzea**: *el legado de cosa ajena si el testador, al legarla, sabía que lo era, es válido. El heredero estará obligado a adquirirla para entregarla al legatario; y, no siéndola posible, a dar a éste su justa estimación. La prueba de que el testador sabía que la cosa era ajena corresponde al legatario* (KZeko 861. art.); *si el testador ignoraba que la cosa que legaba era ajena, será nulo el legado. Pero será válido si la adquiere después de otorgado el testamento* (KZeko 862. art.). Legatutako gauza beste norbaitena bada, *iuris tantum* presuntzio hau ezartzen da: legatua deuseza da. Baliozkoa bada, zamatua gauza eskuratu eta entregatzeko

obligazioa izango du eta, ezinezkoa ez bazaio behintzat, baliokidea emanaz ezingo du obligazioa bete.

(2.2) **Zamatuaren gauza legatzea:** *será válido el legado hecho a un tercero de una cosa propia del heredero o de un legatario, quienes, al aceptar la sucesión, deberán entregar la cosa legada o su justa estimación, con la limitación establecida en el artículo siguiente. Lo dispuesto en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio de la legítima de los herederos forzosos (κzeko 863. art.).* Sortzen den obligazioa, izaeraz, alternatiboa da.

